



aztiker  
SOZIOLOGIA IKERGUNEA



ATAUNGO UDALA

# ZAHARTZARO EREDU BERRIAZ HERRITARREKIN HAUSNARKETA

---

GALDETEGIAREN EMAITZAK

AZTIKER IKERGUNEA  
[www.aztiker.eus](http://www.aztiker.eus)

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b> .....	<b>2</b>
<b>OHAR METODOLOGIKOAK</b> .....	<b>2</b>
<b>EMAITZAK</b> .....	<b>3</b>
ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK.....	3
HERRITARREKIN HARREMANAK ETA ZAINZA.....	6
EGOERA PERTSONALA ETA AUTONOMIA MAILA .....	9
BIZILEKUA ETA BIZIKIDETZA.....	12
AISIALDIA ETA DENBORA LIBREA.....	16
ADINEKO HERRITARRENTZAT ZAINZA ZERBITZUAK.....	18
ZAHARTZAROAREN IMAGINARIOA.....	27
<b>AMAIERAKO OHARRAK</b> .....	<b>36</b>

# SARRERA

Hemengo dokumentu honetan zera aurkezten da, Ataungo 3. Adineko pertsonen prozesuari lotuta egindako galdetegiaren azterketa eta ustiaketa, Aztikerrek ustiatutako datuen aurkezpena eta irakurketa dago jasota. Egun Ataunen erroldatu dauden 55 urtetik gorako pertsonen hainbat datu, iritzi eta balorazioa jasotzen dira txosten honetan. Besteak beste, aldagai soziodemografikoak, herritarren harremanak eta zaintza, Ataungo zerbitzuak eta hauen beharrak edota aisialdia eta denbora libreaz aztertu dira.

# OHAR METODOLOGIKOAK

## **DATU TEKNIKOAK (LABURPENA):**

**Unibertsoa:** 616 herritar (55 urtetik gorako pertsonak)

**Lagina:** Ez da laginik egon, helburua ez baitzen ordezkagarria izatea.

**Lortutako inkesta kopurua:** 148 (unibertsoaren %24)

**Landa-lana:** 2024ko abenduaren 5a eta 18a bitartean.

**Metodologia:** Galdetegia 55 urtetik gorako atarrek paperean jaso dute etxeko postontzian azalpen gutun batekin. Galdetegia online eta paperean betetzeko aukera gaitu da. Paperezko galdetegiak jasotzeko postontzi fisikoak ipini dira udaletxean, Atsedean Tokian eta mediku kontsultetan. Guztira 128 galdetegi erantzun dira: 103 paperean jaso dira eta 25 zuzenean online.

**Hizkuntza:** Galdetegia euskaraz edota gaztelaniaz betetzeko aukera egon da. Paperean euskaraz banatu da eta bertan jasotzen zen QRaren bidez online euskaraz zein gaztelaraz erantzuteko aukera egon da. 100%ak euskaraz bete du.

# EMAITZAK

---

## ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK


---

- Guztira 148 pertsonak bete dute inkesta. Inkesta bete duten Ataundarren artean, gehienak emakumeak izan dira (%60,9). Adin tarte guztietan emakumeak gailendu dira, baina 65 urtetik beherakoen artean dago alde adierazgarriena. Gizonak %23,3a izan diren bitartean, adin tarte horretan emakumeak izan dira %76,7a.
- Lan egoerari dagokionez, inkestatuen ia hiru laurden pentsionistak dira, kotizatutako pentsioa edota bestelako arrazoiengatik jasotako pentsionistak hain zuzen ere. Adierazgarria da etxeko lanetan aritzen diren pertsonen artean ez dagoela gizonik, aldiz, emakumeak inkestatuen ia %10a dira.

**Sexua**


	Adin-taldeak			
	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Emakumea	60,9	76,7	52,1	60,0
Gizona	39,1	23,3	47,9	40,0
Guztira (n eta %)	100,0	100,0	100,0	100,0
	128	30	48	50

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza."

**Adin-taldeak**

	Sexua		
	Guztira	Emakumea	Gizona
65etik behera	23,4	29,5	14,0
65-74	37,5	32,1	46,0
75 edo +	39,1	38,5	40,0
Guztira (n eta %)	100,0	100,0	100,0
	128	78	50
<b>Batez bestekoa</b>	<b>71,3</b>	<b>70,4</b>	<b>72,9</b>



Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza."



## Zein da zure lan-egoera?

	Sexua			Adin-taldeak			
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Lanean besteren kontura	16,6	20,9	10,2	17,8	67,7	4,2	0,0
Lanean norbere kontura (autonomo, kooperatibista...)	2,8	1,2	5,1	2,3	6,5	2,1	0,0
Langabezian	0,7	1,2	0,0	0,8	0,0	2,1	0,0
Etxeko lanak	5,5	9,3	0,0	6,2	3,2	2,1	12,0
Jubilatua, pentsionista (neuk kotizatutako pentsioa jasotzen)	54,5	40,7	74,6	53,5	19,4	77,1	52,0
Pentsionista (beste norbaitek kotizatutako pentsioa jasotzen, alarguntasuna adb.)	17,9	25,6	6,8	17,1	3,2	8,3	34,0
Beste bat	2,1	1,2	3,4	2,3	0,0	4,2	2,0
Guztira (n eta %)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	145	86	59	129	31	48	50

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."



## HERRITARREKIN HARREMANAK ETA ZAINZA


---

- Inkestatuak izan diren 10 adineko pertsonatik 8k egunero edo ia egunero du erlazioa bere familiarekin.
- Haien lagunekin egunero edo ia egunero erlazioa duten adineko pertsonak ere gehiengo dira, baina, kasu honetan ez dira sikiera inkestatuen herenera heltzen.
- Aldiz, bizilagunekin egunero edo ia egunero erlazioa duela adierazi du inkestatuen %39,1ak. Azkenengo honetan, haien bizilagunekin erlazio gehien duten adin tarteak 65 urtetik gorakoak dira, hala adierazi du 65-74 urte tartean %41,5ak eta %51,2ak 75 urtetik gorakoen artean.
- Etorkizunean dependentzia egoera batean egotekotan, inkestatuen %7ak adierazi du ez duela inor bera zainduko duenik. Horretaz gain, beste %34,6ak ez dakiela erantzun du. Datu hauek begiratzuz gero, ikusi dezakegu soilik adineko pertsonen laurdenak baina pixka bat gutxiagok izango duela bera zainduko duen norbait dependentzia egoeran egongo balitz.

## Zein maiztasunekin elkartzen zara ondokoekin?

	Familiarekin				Lagunekin				Bizilagunekin			
	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Egunero edo ia egunero	82,7	83,9	81,3	83,3	32,5	17,2	31,9	43,2	39,1	17,9	41,5	51,2
Astean 2-3 aldiz	10,2	12,9	8,3	10,4	29,2	34,5	23,4	31,8	25,5	21,4	31,7	22,0
Astean behin	4,7		6,3	6,3	22,5	37,9	19,1	15,9	10,9	25,0	4,9	7,3
Noizbehinka ala ia inoiz ez	1,6	3,2	2,1		15,0	10,3	23,4	9,1	20,0	28,6	17,1	17,1
Ez dakit / Ez dut erantzun nahi	0,8		2,1		0,8		2,1		4,5	7,1	4,9	2,4
Guztira (n eta %)	100,0 127	100,0 31	100,0 48	100,0 48	100,0 120	100,0 29	100,0 47	100,0 44	100,0 110	100,0 28	100,0 41	100,0 41

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza."






**Etorkizunean, zure osasunagatik edota egoera fisikoagatik norbaitek zaindu beharko bazintu...**

	Adin-taldeak			
	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Zainduko nauen norbait izango dut, beti	27,6	13,3	14,9	48,0
Denboraldi batean zehar zainduko nauen norbait izango dut	15,0	16,7	10,6	18,0
Noizbehinka zainduko nauen norbait izango dut	15,0	13,3	25,5	6,0
Ez daukat ni zainduko nauen inor	7,9	13,3	8,5	4,0
Ez dakit / Ez dut erantzun nahi	34,6	43,3	40,4	24,0
Guztira (n eta %)	100,0 127	100,0 30	100,0 47	100,0 50

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."




## EGOERA PERTSONALA ETA AUTONOMIA MAILA

- Oro har, inkesta bete duten adineko pertsonak adierazi dute ez dutela eragozpenik haien egunerokotasunean paseatzeko, eskailerak igo eta jaisteko edota ohetik altxatzeko. Izan ere %80tik gora erantzun dute ez dutela zailtasun edo eragozpenik halako ekintzak egiterako garaian. Hala ere, adin tartetan gora egin ahala, ikusi dezakegu aipatutako aktibitateekiko eragozpen maila igo egiten dela. Horren kasu dugu adibidez +75eko tartean eragozpen handiagoak dituztela beste adin tarteekin alderatuz gero.

### Zure osasun egoerak eragozten dizu jarduera hauek egitea?

	Paseatzea / buelta bat ematea				Eskailera gutxi batzuk igozea				Ohetik altxatzea edo etzatea			
	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Bai, asko eragozten dit	4,0		2,1	8,3	4,2			11,6	2,6			7,3
Bai, pixka bat eragozten dit	8,7			22,9	11,9			32,6	4,3			12,2
Ez, ez dit eragozten	87,3	100,0	97,9	68,8	83,9	100,0	100,0	55,8	93,1	100,0	100,0	80,5
Guztira (n eta %)	100,0 126	100,0 31	100,0 47	100,0 48	100,0 118	100,0 29	100,0 46	100,0 43	100,0 116	100,0 29	100,0 46	100,0 41


Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza."



**(Zailtasunen bat adierazi dutenek) Ekintza horiek egiteko laguntzaren bat jasotzen duzu? Sexuaren arabera**

	Paseatzea / buelta bat ematea			Eskailera gutxi batzuk igotzea			Ohetik altxatzea edo etzatea		
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona
Ez dut laguntzarik jasotzen	42,9	33,3	55,6	52,0	52,9	50,0	35,7	33,3	40,0
Pertsona bolondres batek laguntzen dit (familia, lagunak...)	9,5	8,3	11,1	12,0	11,8	12,5	14,3	11,1	20,0
Ordaindutako pertsona batek laguntzen dit	42,9	50,0	33,3	16,0	11,8	25,0	42,9	44,4	40,0
Laguntza mekanikoa dut	0,0	0,0	0,0	12,0	17,6	0,0	0,0	0,0	0,0
Ez dakit	4,8	8,3	0,0	4,0	5,9	0,0	7,1	11,1	0,0
Ez dut erantzun nahi	0,0	0,0	0,0	4,0	0,0	12,5	0,0	0,0	0,0
Guztira (n eta %)	100,0 21	100,0 12	100,0 9	100,0 25	100,0 17	100,0 8	100,0 14	100,0 9	100,0 5


Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza."



**(Zailtasunen bat adierazi dutenek) Ekintza horiek egiteko laguntzaren bat jasotzen duzu? Adinaren arabera**

	Paseatzea / buelta bat ematea				Eskailera gutxi batzuk igotzea				Ohetik altxatzea edo etzatea			
	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Ez dut laguntzarik jasotzen	47,1	0,0	100,0	43,8	57,1	0,0	100,0	55,0	36,4	0,0	100,0	30,0
Pertsona bolondres batek laguntzen dit (familia, lagunak...)	11,8	0,0	0,0	12,5	14,3	0,0	0,0	15,0	18,2	0,0	0,0	20,0
Ordaindutako pertsona batek laguntzen dit	35,3	0,0	0,0	37,5	9,5	0,0	0,0	10,0	36,4	0,0	0,0	40,0
Laguntza mekanikoa dut	0	0,0	0,0	0,0	9,5	0,0	0,0	10,0	0	0,0	0,0	0,0
Ez dakit	5,9	0,0	0,0	6,3	4,8	0,0	0,0	5,0	9,1	0,0	0,0	10,0
Ez dut erantzun nahi	0	0,0	0,0	0,0	4,8	0,0	0,0	5,0	0	0,0	0,0	0,0
Guztira (n eta %)	100,0 17	0,0 0	100,0 1	100,0 16	100,0 21	0,0 0	100,0 1	100,0 20	100,0 11	0,0 0	100,0 1	100,0 10

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."



## BIZILEKUA ETA BIZIKIDETZA



---

- Etxebizitza batean bakarrik bizi direnei erreparatuta, emakumezkoak nagusitzen dira %22,5; bakarrik bizi diren gizonezkoen aldean, hauek %14,5 baitira.
- Gehienetan bi lagun bizi dira etxebizitzan, guztien %43,7; hauek bikotearekin % 67,3. Egoera hori gainera adin franja guztietan mantentzen da nagusi.
- Etxebizitza batean bakarrik bizi diren pertsonen gehiengo zabalak argitu du gustura dagoela egungo egoeran bizitzen, hau da, gustura sentitzen direla haiek bakarrik etxebizitza batean bizitzen. Hala adierazi du inkestatuen %100ak.
- Aldiz, pertsona gehiagorekin bizi diren ataundarrek, gehiengo zabalak gustura dagoela azaleratu duen arren, gustura ez daudenen ehunekoak apur bat altuagoa da, %1a gutxi gora behera.
- Datu horiekin batera, inkesta bete duten pertsonen gehiengoak ere argitu du etorkizunean ere gaur egungo egoeran bizitzen jarraitu nahiko lukeela (%96,5).

**Guztira, zenbat lagun bizi zarete etxean (zu barne)? Zenbakitan jarri, mesedez**

	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
1	19,3	22,5	14,5	20,2	16,7	27,9	15,2
2	43,7	42,5	45,5	42,0	23,3	34,9	60,9
3	23,0	21,3	25,5	23,5	33,3	27,9	13,0
4	8,1	8,8	7,3	7,6	20,0	7,0	0,0
5	4,4	2,5	7,3	5,0	6,7	2,3	6,5
6	1,5	2,5	0,0	1,7	0,0	0,0	4,3
Guztira (n eta %)	100,0 135	100,0 80	100,0 55	100,0 119	100,0 30	100,0 43	100,0 46
<b>Batez bestekoa</b>	<b>2,4</b>	<b>2,3</b>	<b>2,5</b>	<b>2,4</b>	<b>2,8</b>	<b>2,2</b>	<b>2,3</b>



Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."

**Sexuaren arabera**

**Adinaren arabera**


**Zeintzuk dira zurekin bizi diren pertsona horiek? (Aukera anitza)**

	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Senarra / Emaztea / Bikotea	67,3	62,9	72,9	63,5	68,0	53,1	69,2
Seme-alabak	37,3	41,9	31,3	37,5	60,0	31,3	28,2
Anai-arrebak	13,6	14,5	12,5	15,6	16,0	31,3	2,6
Bilobak	5,5	6,5	4,2	6,3	0,0	3,1	12,8
Beste bat	5,5	6,5	4,2	5,2	20,0	0,0	0,0
Guztira (n eta %)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	110,0	62,0	48,0	96,0	25,0	32,0	39,0

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."

**Sexuaren arabera****Adinaren arabera**

**(Bakarrik bizi direnei) Orokorrean, gustura zaude bakarrik bizitzen?**


	Sexua		
	Guztira	Emakumea	Gizona
Gustura nago	100,0	100,0	100,0
Guztira (n eta %)	100,0 31	100,0 21	100,0 10

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."

**(Norbaitekin bizi direnei) Orokorrean, gustura zaude zurekin bizi diren pertsonekin bizitzen?**


	Sexua		
	Guztira	Emakumea	Gizona
Gustura nago	98,1	98,3	97,9
Ez nago gustura	0,9	1,7	
Ez dakit	0,9		2,1
Guztira (n eta %)	100,0 107	100,0 60	100,0 47

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."

**Gaur egun bizi zaren etxebizitzan bizitzen jarraitu nahi duzu?**

	Sexua		
	Guztira	Emakumea	Gizona
Bai, jarraitu nahi dut	96,5	95,3	98,2
Ez, ez dut jarraitu nahi	1,4	2,3	0,0
Ez dakit	2,1	2,3	1,8
Guztira (n eta %)	100,0 143	100,0 86	100,0 57

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."

**Zein da arrazoia?**

Aldaketa beharra

Baserría ez dau prest

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."




## AIISIALDIA ETA DENBORA LIBREA

- Ataungo hirugarren adineko pertsonen erdiak baino gehiagok aktibitate fisiko lasaia egiten duela aipatu du, (%51,6). Soilik %3,1ak adierazi du ezin duela aktibitate fisikorik burutu, nahiz eta datu hauek 75 urtetik gorakoen artean %6,1era heltzen diren.
- Datuetan ikusi daitekeen moduan, aisialdiarekin lotutako denboran, adineko pertsonak asebeteta edo oso asebeteta daudela ikusi dezakegu, hala adierazi du inkesta bete duten pertsonen %85,1ak. Haien denbora librearekin "ez asebeteta" dauden pertsonen artean, 65 urtetik beherakoak dira gehiengoa, %19,4a hain zuzen ere.
- Generoari erreparatzen baldin badiogu, gizonezkoen artean oso asebeteta aukera apur bat altuagoa da (%22,8) emakumezkoena baino (%11,9). Asebeteta daudela diotenen artean aldiz emakumezkoen portzentaia %72,6 eta gizonezkoena % 63,2a da.

### Honako aktibitate hauetatik zeinek deskribatzen du hoberen zure egunerokotasunean duzun aktibitate maila?

	Adin-taldeak			
	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Ia aktibitaterik ez (irakurri, TB ikusi etab.)	3,1	3,2	0,0	6,1
Etxeko aktibitate normala (gestioak, erosketak egitera joan, buelta bat eman...)	35,9	25,8	22,9	55,1
Aktibitate fisiko edo kirol aktibitate suabea/lasaia (adibidez, paseatu)	51,6	58,1	60,4	38,8
Aktibitate fisiko edo kirol aktibitate intsentsua (adibidez, kirola egin)	9,4	12,9	16,7	0,0
Guztira (n eta %)	100,0 128	100,0 31	100,0 48	100,0 49



Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."



## Orokorrean, asebeteta zaude zure denbora librearekin?

	Sexua			Adin-taldeak			
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Oso asebeteta	16,3	11,9	22,8	16,5	9,7	27,1	10,4
Asebeteta	68,8	72,6	63,2	70,1	71,0	62,5	77,1
Ez asebeteta	11,3	10,7	12,3	10,2	19,4	6,3	8,3
Batere asebeteta ez	1,4	2,4	0,0	1,6	0,0	2,1	2,1
Ez dakit	2,1	2,4	1,8	1,6	0,0	2,1	2,1
Guztira (n eta %)	100,0 141	100,0 84	100,0 57	100,0 127	100,0 31	100,0 48	100,0 48

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza."



## ADINEKO HERRITARRENTZAT ZAINZA ZERBITZUAK


---

- Ataungo zerbitzuei dagokienez honako iritziak bildu dira:
  - Atsedeen tokia Ataungo adineko gehienek ezagutzen dute, 10 pertsonatik 9k gutxi gora behera. Erabilerari dagokionez, herritarren heren batek baina pixka bat gehiagok erabiltzen dute zerbitzu/espazio hau eta 6,9ko balorazioa ematen diote.
  - Eguneko zentroari dagokionez, atsedeen tokia ez bezala, soilik inkestatuen %26,7ak adierazi du ezagutzen duela, nahiz eta ezagutza maila emakumeengan (%31,7) gizonengan (%20) baino dezentea altuagoa izan. Kasu honetan erabilera maila ere nahiko baxua da, 10etik 1,2k erabiltzen dute zerbitzu hau. Dena den, gizonen kasuan %33,3ak adierazi du zerbitzu hau erabiltzen duela. Batz bestek 6,8ko balorazioa eman diote zerbitzu honi.
  - Azkenik, erresidentziaren ezagutza duela aipatu du inkestatuen %30,5ak, herenak baino zertxobait gutxiagok. Kasu honetan, emakumeen ezagutza %36,1 gizonen ezagutzaren gainetik dago ia %14 batean. Hau da erabilera gutxien duen zerbitzua, soilik inkestatuen %10ak erabiltzen baitu. Hala ere, gizonen kasuan %25a izan dira zerbitzu hau erabiltzen dutela adierazi dutenak. Guztira 6,6ko batz besteko balorazioa jaso du.
- Ataunen hirugarren adineko pertsonentzat dauden zerbitzuei dagokienez, inkesta erantzun dutenen gehiengoak (%31,9) adierazi du erdibidekoak direla.
- Inkestatutako ataundarren iritziak %59,1rentzat zerbitzuak falta dira herrian. Emakumeen kasuan apur bat altuagoa da ehuneko hau (%61) gizonen kasuan baino (%56,4). Adin tarteei erreparatu gero, ikusi daiteke zerbitzuak falta direla uste dutenen artean %61,3a dira 65 urtetik beherakoak; beste adin tartetean ehuneko hauek baxuagoak dira.

### Ataun eta inguruan dauden adineko pertsonen arreta eta zaintzarako zerbitzuen ezagutza, erabilera eta balorazioa

	Atsedeen Tokia			Eguneko zentroa			Erresidentzia		
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona
Ezagutza	90,9	92,4	88,7	26,7	31,7	20,0	30,5	36,1	22,7
Erabilera	35,6	33,9	38,1	12,0	5,3	33,3	10,0	4,5	25,0
Balorazioa	6,9	7,0	6,8	6,8	6,8	0,0	6,6	6,7	6,5



Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza."



### Oro har, nolakoak iruditzen zaizkizu Ataunen eta inguruan adinekoen zaintzarako dauden zerbitzuak?

	Sexua			Adin-taldeak			
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Oso egokiak	0,7	1,3	0,0	0,8	0,0	0,0	2,3
Egokiak	22,5	23,8	20,7	23,1	12,9	17,0	37,2
Erdibidekoa	31,9	36,3	25,9	33,9	41,9	27,7	34,9
Desegokiak	19,6	17,5	22,4	14,9	22,6	17,0	7,0
Oso desegokiak	0,7	1,3	0,0	0,8	0,0	2,1	0,0
Ez dakit	24,6	20,0	31,0	26,4	22,6	36,2	18,6
Guztira (n eta %)	100,0 138	100,0 80	100,0 58	100,0 121	100,0 31	100,0 47	100,0 43

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."



**Zergatik iruditzen zaizkizu desegokiak?**

Adinean aurrera joan ala, desegokiena baserria det, herri kaxkotik urruti, berogailuik ez, haundiegia garbitzeko mantejtzeko, eskaileraz betea....

Ahal dira hobeto

Ataune ez dago.

Ataunen bertan ez dugulako zerbitzurik

Ataunen bertan zerbait gehiago izatea gustatuko litzaidalako

Auzoen banaketak zailtzen du egoera. Jubilatuen adin tartea oso zabala da eta guztientzako ez dago eskaintza bera

Denak hobetu daitezkeelako

Eguneko zentro bat Ataunen

Eguneko zentro bat herrian bertan izatea beharrezko ikusten dut

Eguneko zentroa herrian bertan beharko litzateke, adinekoek bakardadea paira dezakete

Eguneko zentroa herrian izatea edo antzeko zerbait herrian jartzea. Egokia izango litzateke egoitza ere jartzea

Era guztietakoak geroz eta gehiago beharko dira

Ez dagoela behar adina zerbitzu iruditzen zait

Ez dakit zer dagoen

Ez det pentsatzen desegokiak direnik

Ez ditut ezagutzen

Ez ditut ezagutzen, beraz ez dakit egokiak ala desegokiak diren

Gero eta adineko gehiago gaude eta zerbitzuak handitu beharra ikusten dut

Gutxi

Herri kaxkoan bizi denarentzat bakarrik eroso

Herri oso sakabanatua delako eta zenbat tokitara bitartekoak iristen ez direlako

Herrian bertan ez dugulako eguneko zentroa

Herrian bertan eman behar direlako

Herrian eguneko zaintza izatea familientzako oso egokia izango litzateke. Lana eta familia uztartzeko bide hobea izango litzateke.

Herriko zerbitzaria aurkitzea zaila denez, kanpotarrak izaten ditugu. Askotan hizkuntzarekin arazoak izaten ditugu

Herrikoak jakin dezagun, telefonoak edo nora jo, argi eta garbi izan beharko genuke

Kaleak ez daudelako egokituak karro Edo gurpildun aulkian ekin ibiltzeko

Laguntza ekonomikoa jasotzen dut, eta listo.

Mediku falta dago, egunerokoan faltan botatzen da. Edozer gauza gertatzea eta kontsulta ez egotea... Zerbitzua uste dut beharrezkoa dela

Mediku falta dago. Egunerokoan botatzen da faltan eta behar denean auzo batetik bestera mugitu beharra edo lazkaora arte joan beharra

Mediku zerbitzu aldetik

Mugikortasuna arazo handia da

Ni auzo ttiki batean bizi naiz (Ergone) eta hemen ez dago zerbitzurik. Autobusa, behar izanezkeroko ere sarritan aurrez eskatu beharra izaten dugu

Nire ustez eguneko zentroa faltan botatzen det

Oraingo residentziaren erabilpenari beste buelta bat eman behar zaio

Zaintza norberak ordaindua

Ze zerbitzu dauden eta ze aukerak dauden biztanleei zabaldu eta azaldu egin behar dira

Zerbitzu horiek ez ditut ezagutzen

Zerbitzu horietako batzuk herritik kanpo daudelako eta gaur egungo egoerari egokitu gabe daudelako

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."

**Zure eguneroko bizitzan, zein premia dituzu ase gabe?**

Aisialdia
Alzheimerren lehenengo fasean edo dago (baloraziorik gabe). Momentuz bere kabuz moldatzen da, baina arazoak ditu jendea ezagutzeko, diru jestio batzuk egiteko eta urduri jartzen da zenbait ekintza egiteko.
Baratzeko belar txarrak kendu, ta gainontzeko lanak egiteko laguntza
Beita erreziklatzeko ontzia
Dependientea naiz eta inguruko laguntzaz egiten ditut gauzak
Eguneroko bizitzan ondo moldatzen naiz momentuz
Elbarrituek aparkatzeko txartela dut baina ez dago lekurik aparkatzeko elbarrituentzako etxetik gertu
Etxea garbitzeko
Etxea garbitzeko zailtasunak
Etxea garbitzeko zailtasunak baina laguntzaile bat daukat astean 2 egunetan 2 orduz
Etxea garbitzeko zailtasunak, erosketak egiteko zailtasunak, medikura joateko, gestioak egiteko arazoak ditut...orokorrean mugikortasun arazoak ditut arnasketak eragindakoak
Etxeko lanak egiteko geroz eta zailtasun gehiago
Etxera igotzeko eskaiera asko ditut, eta asko kostatzen zait igo eta jaistea. Ez dugu igogailurik.
Ez
Ez daukat
Ez daukat
Ez daukat
Ez daukat arazorik momentuan, gauza horiek danak alabak egiten dizkit eta.
Ez daukat asegabeko premiarik
Ez daukat horrelako premirik
Ez daukat premia larririk
Ez daukat premiarik
Ez daukat arazorik
Ez dut arazorik
Ez dut arazorik
Ez dut eragozpenik
Ez dut momentuz premirik
Ez dut premiarik
Ez dut premiarik ase gabe
Ez dut zailtasun fisikorik, baina medikura joateko Edo bankura Edo zerbitzuetan kudeaketan ulertzen laguntzeko norbait behar dut
Gaur egun ez dut ase gabe dudana premiarik
Gauza horietarako laguntzaileak ditut
Gestioak egiteko arazoak
Gestioak Internetez egiteko arazoak ditut
Informatikako ikastaroak behar ditugu
Kotxe beharra daukat erosketak egiteko
Laguntzaileak ditut
Medikuetara joateko besteen laguntza behar dut. Gestioak egiteko ere bai. Erosketak egiteko ere bai
Medikura edo erosketak egiteko desplazamendu zailtasunak. Etxea garbitzeko zailtasunak. Gestioak egiteko arazoak
Momentu honetan kotxez edo oinez mugitzen naiz, baina auzo guztiak ez daude egoki lotuta oinez ibiltzeko. Espaloiak...
Momentuz arazorik ez
Momentuz arazorik ez
Momentuz ez
Momentuz ez daukak arazorik
Momentuz ez daukat horrelako premirik
Momentuz ez daukat zailtasunik, ondo moldatzen naiz
Momentuz ez det beharrik



Momentuz ez det inolako premiarik. Gu moldatzen gara
Momentuz ez dut arazorik
Momentuz ez dut premiarik
Momentuz ez dut zailtasunik
Momentuz ondo moldatzen naiz
Momentuz oso ondo moldatzen naiz
No
Ondo moldatzen naiz oraingoz
Online gestioak egiteko arazoak
Orain arte autonoma naiz
Oraindik ez dut arazorik
Oraingoz ez
Oraingoz ez daukat eragozpenik
Oraingoz ez dut
Oraingoz ez dut premiarik
Oraingoz ez dut zailtasunik
Orokorrean dena
Pertsona bat daukat laguntzeko.
Premia batzuek (mediku espezialistak) familiaren laguntzarekin asetzen ditut
Premia guztiak asetuta ditut
Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."



## Zerbitzurik falta dela uste duzu?

	Sexua			Adin-taldeak			
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Bai	59,1	61,0	56,4	57,4	61,3	55,3	56,8
Ez	10,2	9,8	10,9	10,7	3,2	8,5	18,2
Ez dakit / Ez dut erantzun nahi	30,7	29,3	32,7	32,0	35,5	36,2	25,0
Guztira (n eta %)	100,0 137	100,0 82	100,0 55	100,0 122	100,0 31	100,0 47	100,0 44

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."



**Zein zerbitzu sumatzen duzu faltan?**

1) eguneko zentroa herrian bertan. 2) adinekoak artatzeko erresidentzia edo antzeko zerbitzu bat

Adinekoentzako zentroa

Adinekoentzako zentroa, eguna bertan igarotzeko edota bertan bizi al izateko.

Ataunen atseden toki dago bakarrik eta eskaintzen ditun zerbitzuak murrizak direlako (oso) adin konkretu bati zuzenduak (75etik aurrera). Zerbitzuak falta dira, adineko pertsona era globalagoan eta sozializazioa landuko lukeena beharko luke izan

Ataunen eguneko zentro bat

Ataunen eguneko zentroa. Eta erresidentzia

Atseden tokia berritu eta eguneko zentroa bietan ekintzak egiteko teknikariekin

Atsedentokia berpiztu, eguneko zentroa bideratu eta bietan ekintzak egin teknikariekin

Autoa erabiltzeko gaitasunik ez duenarentzat garraioa. Eguneko zentroa behar dutenentzat, herritik kanpo joan behar eta kasu batzuetan nola joanik ez...eta abar

Batez ere eguneko zentroa

Beretaz ondo baliatzen ez den batentzat eguneko zentro bat behar da. Otorduak egiteko eta tartea pasatzeko

Beti hobetu daiteke

Dena, ez bait dago ezer ataunen

Denda koskor bat, eguneroko erosketak egiteko

Egoitzaren bat, non aukera legoken bakoitzak bere gela izan baina era berean besteekin egoteko uneak ere izango dituen

Eguneki zentru bat, erresidentzia

Eguneko zentro bat gustatuko litzaidake

Eguneko zentro bat herrian, apartamendu asistituak, kultur etxe bat, dinamizatzailea (herrian guztiontzat)

Eguneko zentro bat oso dependentsia handiarentzako

Eguneko zentroa

Eguneko zentroa

Eguneko zentroa

Eguneko zentroa ataunen

Eguneko zentroa edo zaintza

Eguneko zentroa eta pisu konpartituak adinekoentzat

Eguneko zentroa herrian

Eguneko zentroa herrian jartzea edo antzeko zerbat, egoitza ere bai. Hitz egin beharko da ze eredu, aukera ezberdinak ikusi, tseden tokin bazkaldu

Eguneko zentroa herrian jartzea edo antzeko zerbitzuren bat, herritik kanpora joan gabe. Hau aurrera eramateko, bildu jendearen iritzia jaso, eredu ezberdinak ikusi. Zerbitzu hauen premia ikusi eta ahal den azkarrena egin behar dela iruditzen zait

Eguneko zentroa herrian jartzea edo antzeko zerbitzuren bat, herritik kanpora joan gabe. Herrian egoteak lana ere sortuko luke

Eguneko zentroa, erresidentzia bat

Eguneko zentroa, pisu tutelatuak...

Eguneko zentrorako lekua eta adinekoentzat egoitza

Eguneko zentrua

Eguneroko egoitza bat eta jubilatuentzako aktibitate edo elkarrizketa gehiago egin

Ergoien pertsona helduak egoteko toki bat

Gure auzo ttikian (ergone) jende bilkurak egiteko aterpe edo estalkia, egun deserrosoetan ere tertulian egoteko. Hau plazan izatea izango zen ona.

Herrian bizitzeko aukera hil arte edo elbarritasun handia izatea. Eaea

Herriko hostatu bat

Igeri leku bat faltan botatzen dugu adinekoek, egunero erabiliko genuke

Informazio gehiago adinekoentzat

Komertzioaren ordutegi eskaxa

Laguntza gehio izatea, auzo batzuetan beraiek elkartzeko...

Luzera begira, eguneko zentroa

Mediku falta, prestatutako zaintza falta, etxez etxeko urbiltasuna

Mediku kontsulta egunero

Mediku zerbitzua egunero

---

Mediku zerbitzuak murriztuta dauzkagu eta erosketak egiteko astean behin falta zaigu zerbitzua eta oporretan berdin

---

Medikua

---

Medikua egunero

---

Otorduak etxetik kanpo egiteko aukera, adibidez

---

Recreación pra niños y adultos

---

Soinketa saioak adin handientzako

---

Urte gutxi barru egoitza gehiago goierrin

---

Zaharren egoitza

---

Zaharrentzat emesidentzia

---

Zerbitzuak egon badaude. Deskantsu egunak eta oporrak direla eta, batzuetan mediku, kutxa eta denden zerbitzuak ez dira izaten

---

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."

## ZAHARTZAROAREN IMAGINARIOA


---

- Hainbat esaldi plazaratu zaizkie inkestatuei, eta esaldi hauekiko adostasun maila adieraztea eskatu zaie. Hauek izan dira jasotako erantzunak:
  - **Zahartzaroarekin batera datoz dependentzia eta ahuldadea, garrantzitsua da horiei lekua egitea.** ia %100ak adierazi du ados edo oso ados dagoela esaldi honekin.
  - **Garrantzitsua da herrian bertan bermatzea eguneroko kontsumorako eta erosketetarako aukera.** Kasu honetan ere, inkestatuen %94,5ak adierazi du herrian kontsumorako zerbitzuak bermatzearekin ados edo oso ados dagoela.
  - **Gaur egun, adineko dependienteen zaintza fisikoa bermatzen da, baina gertutasuna eta afektibitatea gehiago landu behar da.** Hemen ere, inkestatuen ia totalak aipatu du beharrezkoa dela adineko pertsonen zaintza afektiboan fokua jartzea, zaintza fisikotik haratago.
  - **Adineko pertsonen zaintza-eredua berritu behar da, ikuspegi humanoago bat eman eta beste pertsonekin harremanetan oinarritu.** Esaldi honekiko adostasun maila ere oso altua izan da. Izan ere, inkestatuen %54,5a oso ados agertu da eta %38,8a ados. Hau da, adineko pertsonen aburuz garrantzitsua da belaunaldien arteko harremanak sustatzea eta ikuspegi humanoago bat izatea hirugarren adineko pertsonetikiko.
  - **Adineko pertsonen herriari eta ingurukoei ekarpena egitea bermatuko duten borondatezko sistemak sortu behar dira.** esaldi honekiko ere, adostasun maila zabalak izan da (%93,3), hau da, adineko pertsonen beharrezkotzat jotzen dute adineko pertsonen herriari ekarpenak egiteko borondatezko sistemak sortzea.
  - **Etxebizitza kolektiboak (eraikinean espazio komunak dituzten apartamentuak) zahartzaroa harreman duta bizitzeko aukera interesgarria dira.** Oro har, inkestatuen gehiengo zabalak begi onez ikusten du Ataunen etxebizitza kolektiboek onurak ekarri ditzaketela herriko adineko pertsonentzat.
  - **Nahiko nukeen bezalako zahartzaro bat bizitzeko aukera daukadala uste dut.** esaldi honekiko adostasuna, beste esaldiekin alderatuz, baxuagoa da. Izan ere, inkestatuen %17,9ak adierazi du desados ala oso desados dagoela afirmazio horrekin.
  - **Gaur egun, adinekoak nahikoa errekonozituta daude gizartean.** Esaldi honen kasuan, inkestatuen %54,2ak adierazi du desados ala oso desados dagoela honekin. Hau da, inkestatuen aburuz adineko pertsonak ez daude gizartean errekonozituta.
  - **Oro har, bakarrik sentitzen naiz.** Inkestatuen %13,3ak adierazi du bakarrik sentitzen dela, nahiz eta gehiengo esaldi horrekin desados ala oso desados egon (%77).

## Esaldi batzuekiko adostasuna

	Zahartzaroarekin batera datoz dependentzia eta ahuldadea, garrantzitsua da horiei lekua egitea.			Garrantzitsua da herrian bertan bermatzea eguneroko kontsumorako eta erosketetarako aukera.			Gaur egun, adineko dependienteen zaintza fisikoa bermatzen da, baina gertutasuna eta afektibitatea gehiago landu behar da.			Adineko pertsonen zaintza-eredua berritu behar da, ikuspegi humanoago bat eman eta beste pertsonekin harremanetan oinarritu.			Adineko pertsonen herriari eta ingurukoiei ekarpena egitea bermatuko duten borondatezko sistemak sortu behar dira		
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona
Oso ados	48,4	52,7	42,0	52,8	52,6	52,9	40,0	42,1	36,7	54,5	57,3	50,0	37,5	40,3	33,3
Ados	48,4	44,6	54,0	41,7	40,8	43,1	53,6	50,0	59,2	38,8	38,7	39,1	55,8	52,8	60,4
Desados	0,0	0,0	0,0	3,9	5,3	2,0	4,8	6,6	2,0	0,8	1,3	0,0	1,7	1,4	2,1
Oso desados	0,8	0,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,8	0,0	2,1
Ez dakit / Ez dut erantzun nahi	2,4	2,7	2,0	1,6	1,3	2,0	1,6	1,3	2,0	5,8	2,7	10,9	4,2	5,6	2,1
Guztira (n eta %)	100,0 124	100,0 74	100,0 50	100,0 127	100,0 76	100,0 51	100,0 125	100,0 76	100,0 49	100,0 121	100,0 75	100,0 46	100,0 120	100,0 72	100,0 48
<b>Adostasuna (oso ados + ados)</b>	<b>96,8</b>	<b>97,3</b>	<b>96,0</b>	<b>94,5</b>	<b>93,4</b>	<b>96,1</b>	<b>93,6</b>	<b>92,1</b>	<b>95,9</b>	<b>93,4</b>	<b>96,0</b>	<b>89,1</b>	<b>93,3</b>	<b>93,1</b>	<b>93,8</b>


Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza."



## Esaldi batzuekiko adostasuna

	Etxebizitza kolektiboak (eraikinean espazio komunak dituzten apartamentuak) zahartzarora harremanduta bizitzeko aukera interesgarria dira.			Nahiko nukeen bezalako zahartzaro bat bizitzeko aukera daukadala uste dut.			Gaur egun, adinekoak nahikoa errekonozituta daude gizartean.			Oro har, bakarrik sentitzen naiz.		
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona
Oso ados	41,1	42,5	39,2	14,5	15,7	12,8	4,2	4,4	3,8	1,8	3,0	0,0
Ados	47,6	45,2	51,0	56,4	55,7	57,4	33,3	32,4	34,6	11,5	11,9	10,9
Desados	4,0	4,1	3,9	12,8	11,4	14,9	39,2	39,7	38,5	51,3	53,7	47,8
Oso desados	1,6	2,7	0,0	5,1	5,7	4,3	15,0	16,2	13,5	25,7	22,4	30,4
Ez dakit / Ez dut erantzun nahi	5,6	5,5	5,9	11,1	11,4	10,6	8,3	7,4	9,6	9,7	9,0	10,9
Guztira (n eta %)	100,0 124	100,0 73	100,0 51	100,0 117	100,0 70	100,0 47	100,0 120	100,0 68	100,0 52	100,0 113	100,0 67	100,0 46
<b>Adostasuna (oso ados + ados)</b>	<b>88,7</b>	<b>87,7</b>	<b>90,2</b>	<b>70,9</b>	<b>71,4</b>	<b>70,2</b>	<b>37,5</b>	<b>36,8</b>	<b>38,5</b>	<b>13,3</b>	<b>14,9</b>	<b>10,9</b>


Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."



## Esaldi batzuekiko adostasuna

	Zahartzaroarekin batera datoz dependentzia eta ahuldadea, garrantzitsua da horiei lekua egitea.				Garrantzitsua da herrian bertan bermatzea eguneroko kontsumorako eta erosketetarako aukera.				Gaur egun, adineko dependienteen zaintza fisikoa bermatzen da, baina gertutasuna eta afektibitatea gehiago landu behar da.			
	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Oso ados	49,5	65,5	41,9	46,2	55,9	53,3	54,5	59,5	36,7	44,8	35,6	31,4
Ados	48,6	34,5	55,8	51,3	38,7	40,0	40,9	35,1	56,9	44,8	64,4	57,1
Desados	0,0	0,0	0,0	0,0	3,6	0,0	4,5	5,4	4,6	6,9	0,0	8,6
Oso desados	0,9	0,0	2,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ez dakit / Ez dut erantzun nahi	0,9	0,0	0,0	2,6	1,8	6,7	0,0	0,0	1,8	3,4	0,0	2,9
Guztira (n eta %)	100,0 111	100,0 29	100,0 43	100,0 39	100,0 111	100,0 30	100,0 44	100,0 37	100,0 109	100,0 29	100,0 45	100,0 35
<b>Adostasuna (oso ados + ados)</b>	<b>98,2</b>	<b>100,0</b>	<b>97,7</b>	<b>97,4</b>	<b>94,6</b>	<b>93,3</b>	<b>95,5</b>	<b>94,6</b>	<b>93,6</b>	<b>89,7</b>	<b>100,0</b>	<b>88,6</b>


Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."



## Esaldi batzuekiko adostasuna

	Adineko pertsonen zaintza-eredua berritu behar da, ikuspegi humanoago bat eman eta beste pertsonekin harremanetan oinarritu.				Adineko pertsonen herriari eta ingurukoei ekarpena egitea bermatuko duten borondatezko sistemak sortu behar dira				Etxebizitza kolektiboak (eraikinean espazio komunak dituzten apartamentuak) zahartzarora harremanduta bizitzeko aukera interesgarria dira.			
	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Oso ados	54,1	58,6	47,5	57,5	36,4	44,8	32,6	34,3	40,7	50,0	33,3	41,7
Ados	39,4	37,9	42,5	37,5	56,1	44,8	60,5	60,0	48,1	43,3	52,4	47,2
Desados	0,0	0,0	0,0	0,0	1,9	0,0	2,3	2,9	3,7	0,0	4,8	5,6
Oso desados	0,0	0,0	0,0	0,0	0,9	0,0	0,0	2,9	1,9	0,0	4,8	0,0
Ez dakit / Ez dut erantzun nahi	6,4	3,4	10,0	5,0	4,7	10,3	4,7	0,0	5,6	6,7	4,8	5,6
Guztira (n eta %)	100,0 109	100,0 29	100,0 40	100,0 40	100,0 107	100,0 29	100,0 43	100,0 35	100,0 108	100,0 30	100,0 42	100,0 36
<b>Adostasuna (oso ados + ados)</b>	<b>93,6</b>	<b>96,6</b>	<b>90,0</b>	<b>95,0</b>	<b>92,5</b>	<b>89,7</b>	<b>93,0</b>	<b>94,3</b>	<b>88,9</b>	<b>93,3</b>	<b>85,7</b>	<b>88,9</b>

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza."






## Esaldi batzuekiko adostasuna

	Nahiko nukeen bezalako zahartzaro bat bizitzeko aukera daukadala uste dut.				Gaur egun, adinekoak nahikoa errekonozituta daude gizartean.				Oro har, bakarrik sentitzen naiz.			
	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +	Guztira	65etik behera	65-74	75 edo +
Oso ados	15,5	14,3	10,3	22,2	3,8	0,0	2,4	8,6	1,0	0,0	0,0	3,1
Ados	56,3	46,4	59,0	61,1	35,2	39,3	26,2	42,9	11,0	3,4	15,4	12,5
Desados	13,6	10,7	15,4	13,9	38,1	32,1	47,6	31,4	50,0	48,3	41,0	62,5
Oso desados	4,9	7,1	7,7	0,0	13,3	17,9	11,9	11,4	28,0	31,0	35,9	15,6
Ez dakit / Ez dut erantzun nahi	9,7	21,4	7,7	2,8	9,5	10,7	11,9	5,7	10,0	17,2	7,7	6,3
Guztira (n eta %)	100,0 103	100,0 28	100,0 39	100,0 36	100,0 105	100,0 28	100,0 42	100,0 35	100,0 100	100,0 29	100,0 39	100,0 32
<b>Adostasuna (oso ados + ados)</b>	<b>71,8</b>	<b>60,7</b>	<b>69,2</b>	<b>83,3</b>	<b>39,0</b>	<b>39,3</b>	<b>28,6</b>	<b>51,4</b>	<b>12,0</b>	<b>3,4</b>	<b>15,4</b>	<b>15,6</b>


Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza."



**(Jubilatu gabe daudeneztat) Esaldi batzuekiko adostasuna)**

	Jubilatu ondoren, aurreikusten dut denbora nagusiki nire proiektuak egiteko erabiliko dudala (ikasi / formatu, baratzan ibili, bidaia...)			Irrikitzen nago jubilatzeke			Jubilazio zikloan badakit zer egingo dudan eta zertan pasako dudan denbora			Jubilazio zikloan batez ere familia eta ingurukoak laguntzen emango dut denbora		
	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona
Oso ados	0,0	0,0	0,0	11,1	11,1	11,1	8,0	11,1	0,0	7,7	5,6	12,5
Ados	85,2	89,5	75,0	55,6	55,6	55,6	56,0	50,0	71,4	50,0	50,0	50,0
Desados	0,0	0,0	0,0	25,9	27,8	22,2	4,0	5,6	0,0	15,4	16,7	12,5
Oso desados	0,0	0,0	0,0	3,7	5,6	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Ez dakit / Ez dut erantzun nahi	14,8	10,5	25,0	3,7	0,0	11,1	32,0	33,3	28,6	26,9	27,8	25,0
Guztira (n eta %)	100,0 27	100,0 19	100,0 8	100,0 27	100,0 18	100,0 9	100,0 25	100,0 18	100,0 7	100,0 26	100,0 18	100,0 8
<b>Adostasuna (oso ados + ados)</b>	<b>85,2</b>	<b>89,5</b>	<b>75,0</b>	<b>66,7</b>	<b>66,7</b>	<b>66,7</b>	<b>64,0</b>	<b>61,1</b>	<b>71,4</b>	<b>57,7</b>	<b>55,6</b>	<b>62,5</b>

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza."



### Ba al daukazu proposamenik ataundarren zahartzaroko bizimodua hobetzeko?

1- formazioa, pentsaraziko diguna zer eta nola zainduak izan nahi dugun. 2- gaur egun dauden ereduak aztertu eta ikusi zein eredu izan daitekeen egokia ataunerako. 3- eo eredu berri bat sortu.

Adibidez ama sillan ibiltzen dut eta espaloiak ez daude hortarako prestatuta, Arrondoa jun nahi badut, koskak beteta dago espaloia, atzedan tokia txikia gelditzen da, elakargune bat egon beharko litzateke, taberna batekin eta zerbitzari batekin garai baten bezela, herri honek atzeraka egin du azkeneko 14 urtetan eta eta herriko jendea inguruko herrietara bultzatzen ari da udala, umeentzako pentsatuta dago gehien eitten diren gauzak, botika ondo egon litzateke, elkargunea sortzeko, adineko eta gazteentzako..taberna, aisialdiko gelak eta abar, festatan ez da kontuk eukitzen adineko eta horren adibidea, bertson jaialdia da, antzokian egiten zanen, nere gurasoak bertara joaten ziren, bertako gozotasunegatik, eserlekuak, kalefakzioa eta abar, orain dena karpan egiten da, horren dakarren desorotasunagatik, hotza, eserleku inkomodoak adinentzako, tabernen hotsa, adineko asko ezagutzen ditut ez dutela jaialdi horretara joan nahiz eta bertsoak asko gustatu, pena bat iruditzen zait eta ez dit balio esatea, komisioan parte hartzeko, nere garaian ibili nintzen eta hori esan nuenen gazte batzuk erantzun zidaten, ezetz zergaitik festa kanpora atera behar da eta hortarako dago karpa, ze enpati gutxi adinekoagan...beraz herri honek gazte eta umeengan bakarrik pentsatzen du..

Adibidez zaharrazentzat eta gazteentzat aktibitate batzuk

Aktibitateak maizago izatea (taillerrak, bidaiak, erakusketak...)

Alargun asko hilean bizitzeko behar duten gutxienekoa kobratzen ez dutenak. Hau konpondu beharko litzake

Antolatzen diren zerbitzu guztiak herrian bertan izatea deritzot egokiena eta beharrezkoena

Atsedan Tokin ekitaldi edo solasaldi gehiago antolatu

Bai, pentsio txikia dugunontzat gastu murrizketa

Bai. Erdigunetik kanpo bizi garenontzako transporte zerbitzu egokiagoa beharrezkoa ikusten dut.

Bakarrik bizi diranantz eta zailtasunak dituztenentzat janari zerbitzua ematea

Baserriak , oroar, ez dira egokiak.Etxebizitza komunitarioak eraiki beharko lirateke

Bertan residenzia herritarrentzat

Botika zaharra egokitu daiteke, hala nahi duten adinekoen elkargunea izateko, oinarritzko zerbitzu guztiak eskaintzarekin batera: otorduak, irakurtzeko nahiz kontu kontari aritzeko leku atseginak...

Botika zaharrean adin guztietarako eskaintza jartzea, zerbitzu gune bat

Centri de dia bat egin, adibidez botika zaharra konponduta

Cohousing. Herrian bizitzeko aukera hil arte edo elbarritasun handiaizatea. Eaea

Egoitza ataunen sortzea edo eguneko asistentzia egiten duen egoitza

Eguneko Zentro bat herrian izatea ona litzateke

Eguneko zentroa

Eguneko zentroa

Eguneko zentroa

Eguneko zentroa ahal den aguroen bideratu. Atsedentokiari bizia eman zahartzarora hobetzeko

Eguneko zentroa ataunen botika etxean

Eguneko zentroa behar da herrian. Irisgarritasun lekuak ondo jarri (botika pareta adibidez). Erdigunetan behinik behin herribidea konpondu ezintasunekoak ibiltzeko

Eguneko zentroa beharko genuke

Eguneko zentroa eta erresidentzia bertan izateko aukera

Eguneroko egoitza

Eguneroko zentru bat ondo etorriko litzateke

Ergoein auzoan lokal txiki bat jubilatua egoteko, nahiko aparte gelditzen danez

Ez

Ez

Ez daukat

Ez daukat proposamenik

Ezintasun fisikoa dutenei, laguntza gehiago

Falta diren zerbitzuak Ataunen bertan eskaintzea

Herria luzea da, komun gehiago behar dira

Herrian bertan bizitzen jarraitzea duintasunez

Herrian bertan eguneko eta gaueko zaintza bermatuko duen sistema bat izatea, ikaragarria litzateke.

Herritarren arteko sarea osatu beharko litzateke zerbitzuak garatu eta herrian ezartzeko

Inondik ere ikastaldi/IKASTARROAK prestatu aurrerako bizi asmoz. Edota Zaharrei "irakastera bultzatu"

---

Interneten, mugikorrean... Teknologiaren mundua nola aldatzen ari den ikusita, ona litzateke hainbat gestio egiten lagunduko digun norbait izatea

Iruditzen zait GIZARTE guztiaren lana edo egun beharra dela hirugarren adinekoak gizartetik kanpo ez uztea. Eta ez horrenbeste kanpotik etorriko ote zaigunaren zain egotea. Beraz instituzioei zer eska genezaiekeen garbi ez dakit...Agian ideia berriak, beste herri edo herrialdeetan esperimentatzen edo proban jarri diren proiektuak...zerk funtzionatzen duen, zerk ez etab...Baina oso funtseskoa ta derrigorrezkoa ikusten dut gizarte osoa hezitzea zahartzaroaren gizarteratzean.

Horretarako zer egin?...bolondres taldeak sortu hainbat ekintza desberdinetarako...gure haurren hezkuntzan sartu ideia hori

---

Jendea gehiago elkartu beharko litzateke, nahiz eta Ataun herri aldrebesa izan

---

Kalean oinezkoentzat ibilbide erosoak

---

Mugikortasuna hobetu, zahartu ezinduei laguntza gehio, elkargune handiagoa osatu, etxebizitz bereziak zaharrentzat

---

Plazako botika zaharra adin guztientzako zerbitzu gunea bilakatzea

---

Tramiteak egiteko laguntza ( Internet....)

---

Transporte egokiago bat behar dugu. Edonora joateko ere.

---

Zahartu ondoren bakarrik ez, baizik eta aurretik ere hartu behar lirateke neurriak, hainbat ekintza egiteko taldeak sortu

---

Zahartzaro eredu berriaz denon artean hausnartzea (denon artean) bide berriak aztertuz zerbitzu egokiak martxan jartzeko

---

Zentro de día bat jartzea botika zaharren

---

Zerbitzu aldetik eskeintza indartzea

---

Zerbitzuen informazioa eman eta eman laguntza beharrean aurkitzen direnei

---

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza ."

# AMAIERAKO OHARRAK

Adin guztietako pertsonak daukate beharrak eta nahiak, eta denak gustora uztea zaila da. Hirugarren adinekoei dagokionez, Atsedentoki berri bat beste leku batetan.

Adinekoak herrian bertan bizi behar dira. Ez du balio inguruko erresidentzietara edo eguneko zentroetara bideratzea

Ataun herriaren "morfologia" dela eta badakigu ez dela erronka makal adinekoentzat zerbait egokia eta txukuna egitea

Ataunek berea duen naturgune zaindua

Atsedentoki aktibitate gehio, hitzaldik, tailerrak, paseo komunitarioak, manicura, podologo eta abar...

Atsedentokiaz bi hitz: gaur egun adineko gutxi batzuen beharrei erantzuten die sortu zeneko atsedentoki bera jarraitzen du izaten eta denborak asko-asko aldatu dira.

Bai. Erdigunetik kanpo bizi garenontzako transporte zerbitzu egokiagoa beharrezkoa ikusten dut. Erosketak egin ahal izateko, medikuarengana joateko... E.a.

Dagoenaren kalitatea mehoratzea saiatu behar da

Egoera zaurgarrian dauden pertsona hauen kasuan, ez dakigu askotan nora jo edo nola bideratu. Hau jakitea edo zer egin, edo nora bideratu, etab.

Eguneko zentroa

Eskerrak ematen dizkizuet gue iritzia helduarazteko ematen diguzuen aukeragatik

Etxe ingurua hobetu behar eta gainerako bazterrak garbiago eduki

Etxe zaharretan igogailua jartzen laguntzeko laguntza!

Etxe zaharretan laguntza eta sarbidea gehiago egokitu

Etxe zaharretan laguntza gehiago kalera ateratzeko edo oztopoa kentzeko

Ez

Herri txikien arteko zerbitzu eta harremanak bultzatu

Herriko antzokiari ematen zaion ostikarea ezte ulertzen ta oso haserre nago horretaz!!!!

Horretarako ondo legoke gai hauek lantzen ari ziren (bizipoz kooperatiba eta esperientzia berriak (etxabizita kooperatibak) ezagutzea

Igerileku bat gustatuko litzaidake herrian edukitzea

Internetez inkesta egin ahal izatea oso egokia iruditu zaigu erosoan izan delako denontzat.

Iruditzen zait GIZARTE guztiaren lana edo egun beharra dela hirugarren adinekoak gizartetik kanpo ez uztea. Eta ez horrenbeste kanpotik etorriko ote zaigunaren zain egotea. Beraz instituzioei zer eska genezaiekeen garbi ez dakit...Agian ideia berriak, beste herri edo herrialdeetan esperientziaz edo proban jarri diren proiektuak...zerk funtzionatzen duen, zerk ez etab...Baina oso funtseskoa ta derrigorrezkoa ikusten dut gizarte osoa hezitzea zahartzaroaren gizarteratzean.

Horretarako zer egin?...bolondres taldeak sortu hainbat ekintza desberdinetarako...gure haurren hezkuntza sartu ideia hori, ikastetxeetan, etxean etab. (Hariaren bi muturrak nolabait elkartuarazi.)

Jardinetako belar edo asunak maizago moztu eta inguruneak hobeto zaindu

Lazkao gertu dago, baina herrian izatea berme gehiago izango genduke

Lehen esan dudana bezela herrian bertan ahal den eta zerbitzu gehiena ematea. Baita ere aurreikusten dut teknologi berrietan askotan ezingo dugula bakarrik moldatu, nola hainbat gestio egiten ere, beraz gauza hauetarako laguntza sistemaren bat jartzea ere ez litzateke gaizki egongo.

Mesedez herria altsatu, erabat utzita dago urbanizazio aldetik, aurki eskolak umeik ez du izango, bertako jenderentzako ez dagoelako etxebizitzarik, zerbitzu falta haundie gagoelako, udako aisialdi lekuak falta dira, pizina eta abar...pena bat da, Lazkao Ataundarrak beteta ikustea egunerokotasunean..

Ordutegi zabala eskeintzea atxedentokin, prestatutako teknikariekin adibidez

Pentsio oso txikia dutenei duintasunez bizitzeko behar dutena konsegitu

Proposatuko nuke igerileku bat

Udala pres dago soluzioak proposatzeko?

Zaharrentzako etxe bat

Iturria: Aztiker, "Ataun. Zahartzaro eredu berriaz hausnarketa. Inkestaren emaitza."